

III LEHIAKETA “Poesia liburuen tituluekin”

Liburuaren Eguna ospatzeko, apirilaren 23an, Iruñeko Hizkuntza Eskolak literatur lehiaketa antolatu du, “*Poesia liburuen tituluekin*” hain zuzen ere, hau da, liburu batzuen tituluak erabiliz egin daitezke loturak beste esaldi bat sortzeko.

OINARRIAK

1. Parte-hartzaileak

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean 2021/22 ikasturtean matrikula ofiziala duten ikasleak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara.

2. Lanen betekizunak

- Parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

- Testuek zehaztaperen hauek bete beharko dituzte:

- Aukeratutako liburuak benetakoak izango dira, ez da onartuko internetetik lortutako irudirik.
- Irakurketa errazteko, liburuen antolamendua horizontala izango da nahitaez, bata bestearen gainean.
- Lanak gutxienez hiru titulu erabiliko ditu, eta gehienez zazpi. Edozein motatako liburuak erabili daitezke, poesia, eleberria, saiakera, bidaia-gidak, etab.
- Liburuen tituluek irakurgarriak izan behar dute, inola ere ezin dira maneiatu eta titulu osoak agertuko dira.
- Lanak Nafarroan koofizialak diren hizkuntzetan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz, baita IHEOeko edozein hizkuntza ofizialetan ere aurkeztu ahal izango dira.

- Lanak originalak eta argitaragabeak izango dira.

- Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak ez dira lehiaketarako onartuko.

3. Lanak aurkeztea eta identifikatzea

- Lanak posta elektronikoz aurkeztu beharko dira. Email: eoipiheoconcursos@gmail.com

- Mezu elektronikoak “*Poesia Liburuen tituluekin* lehiaketarako” izenburua izango du. Ez da haren egiletzari buruzko aipamenik egingo mezulariaren gorputzean,

- Emailari hiru fitxategi erantsiko zaizkio:

- ✓ Lehena, argazki bat testuarekin, liburuen tituluak erabiliz.
- ✓ Bigarrena, tituluek osatzen duten testuarekin egilearen irizpidearen arabera, interpretazio okerrak saihesteko. Testu honek puntuazioa gehitu ahal izango du (puntuak, harridurak, letra larriak, etab.), zentzua argiago uzteko. Gaztelania ez den beste hizkuntza batean idatzita badago, itzulpena ere sartu beharko du.
- ✓ Hirugarrenean, egilearen datu pertsonalak adieraziko dira: izen-abizenak, telefonozenbakia eta matrikulatuta dagoen hizkuntza eta maila.

4. Lanak bidaltzeko epea

Lanak hartzeko epea 2022ko apirilaren 25ean hasi eta maiatzaren 6ko 23:59an amaituko da. Epea ezingo da luzatu.

5. Irabazleak hautatzea

-Epaimahaia Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko departamentuetako irakasleek osatuko dute.

-Sariak eman gabe gera daitezke, behar besteko kalitaterik ez badute edo oinarrekin bat ez badatoz. Era berean, epaimahaiak pertsonen ohorearen edo intimitatearen aurkako lanak, bai eta mezu arrazistak dituztenak eta indarkeriaren apologia egiten dutenak ere ezabatuko ditu.

-Emitza pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei, eta sare sozialetan adieraziko da ondoren.

6. Sariak

-Sari bat emango da Eskolako hizkuntza ofizial bakoitzeko. Saritutako lana finalista bihurtuko da automatikoki. Dena den, sari hauek eman gabe gera daitezke behar besteko kalitaterik ez badute edo aurkeztutako obren kopurua kontuan hartuta.

-Guztira hamar sari emango dira: bederatzi finalistei eta Lehen Saria erabateko irabazleari, idazlanak edozein hizkuntzatan idatzita daudela ere.

-Finalista bakoitzak 35 euroko txartela jasoko du, material didaktikoa erosteko.

-Erabateko irabazlea, finalista guztien artetik izendatuak, 100 euroko txartela jasoko du material didaktikoa erosteko.

-Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

7. Jabetza eta argitalpena

Aurkezkatutako lanaren jabetza egilearena izango da. Hala ere, IHEOk eskubidea du saritatuko obrak Vox Populi aldizkarian argitaratzeko eta beste sustapen-kanal batzuetan hedatzeko, hala nola prentsan eta sare sozialetan.

8. Oharrak

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauek betetzen ez dituen edozein lan kanporatu ahalko da.